

Pinus pinasteren banaketa geografikoa Gipuzkoan

Hazik egindako azken baso-maparen arabera, Gipuzkoak 1.886 hektarea itsas pinu edo pinus pinaster zituen 2020aren amaieran. Gehienak, % 60 baino gehiago, Donostialdea (764 hektarea) eta Bidasoa Beherea (477) eskualdeen artean daude, Hondarribian hain zuzen ere. Hondarribia, 438 hektarearekin, espezie horren hedadura handiena duen udalerrria da. Hiribildu honetako hiru zuhaitzetatik bat itsas pinua da (% 36).

Hala ere, leku batean itsas pinua jaun eta jabe bada, hau Pasaia dugu. Pasaia zuhaitz-masaren erdia baino gehiago, zehazki 281 hektareako baso-masatik 175: % 62, beraz, itsas pinuak estaltzen ditu. Oriok (% 23) eta Lezok (% 20) ere portzentaia handia dute eta han espezie nagusia da pinasterra.

Eskualdeka

1. Donostialdea	764 hektarea
2. Bidasoa	477 hektarea
3. Debagoiena	174 hektarea
4. Urola Kosta	158 hektarea
5. Debarrena	143 hektarea
6. Tolosaldea	133 hektarea
7. Goierri	37 hektarea

Itsas pinu gehien duten Gipuzkoako udalerrien zerrenda

1. Hondarribia	438 hektarea
2. Pasaia	175 hektarea
3. Andoain	145 hektarea
4. Donostia	134 hektarea
5. Usurbil	131 hektarea
6. Oñati	89 hektarea
7. Orio	82 hektarea
8. Elgoibar	79 hektarea
9. Lezo	71 hektarea
10. Urnieta	58 hektarea